

Hedadura: 59 Km2

Biztanlegoa: 1.737 biztanle

Jaiak:

- Aia: Uztailaren 2an, Santa Isabel
- San Gregario: Irailaren 3an, San Gregario

- San Martin: Ekainaren 5ean. "Jentilaren etorrera" da aipagarria, antzerki bidez uda-muga dela eta jentilen etorrera antzeztzen da.

**Z**abala da Ataungo udalerria. **Estrategi**-koki balio handiko eremuan lekutzen da, Nafarroako Burundarekiko berezko lotura eremu bait da.


Aralarko haizlerroaren **mendi-saihetse**-tan eremu menditsu zabalak ditu, Alzaniako haizlerroa ere, hein txikiagoan izan arren, hartzen duelarik. Gipuzkoa inguratzen duten mendi kateetan igarobide izateak, lurralde honen **ibilbide** historikoan eragin handia izan du.

Inguru honetako habitataren lehen datuak, Goi Paleolitikotik datozkigu, **izotzal**-dien garaitik. Hainbat harrobi sortarazi dituzten kararri-banku zabaletan leizezulo **kontae**-zinak daude. Hauteriko beatzuek, bizi **izate**-ko biltzen dituzten egoera aproposak direla eta, antzinatik izan dute **jenderik**. Usategiko

koban (35-19) Perigordienekoaztarnak aurkitu dituzte eta Pikaditan (35-63) **Azilienseko**-ak. Paleontologia-gune garrantzitsuak ere badira, Troskaeta kobakoa adibidez (35-64), Wurm-Erdikoa, hartzen hezurdura kopuru itzela gordetzen delarik bertan.

Goi Paleolitikoko **hotzaldiak** igaroak zirelarik, mendiak landareriaz eta **animaleriaz** bete ziren, **jendea** bertakotzea areagotuaz; hauek nekazaritza eta ganadutzak **eskain**-tzen zituen abantailak ezagutu zituztelarik, bestelako bizimoduetara egokitu ziren.

Garai honetan **hilobi-monumentuak** ugaririk dira, tumuluak direla, dolmenak edota **hilobi** zuloak direla, Kobazarkoa esaterako (35-20) edota Arratetakoa (35-69). Ez da ordea habitat-arrastork aurkitu, **bizitza-aztar**-nak zituzten zenbait leizezulo izan ezik,





### Zubikoa jauregia.

Armontzaile (40-23) edota Sastari II (41-1) adibidez. Eremu honetan Ataunen aurkitu diren tumulu eta trikuharri ugariak duten lekugunea aipagarria da. Gehientsuenak Aizkorri mendilerroa Aralarrekin lotzen duten mendibizkarretan zehar banatzen dira. Hauetariko askok gainera, udalerrriaren mugaduran mugarri papera egiten dute: Pralata (40-2), Aitxu (40-3), Munaan (40-6), Larreluze (40-7), Igaratza (40-26, 40-27), Beortegiko Morkoa (40-28), Intusburu (40-29), Bernoa (40-30), Argonitz (40-31) e.a.

Usategin (35-19) akuinaturiko txanpon-altxor txiki bat aurkitu zen, merkataritza-harreman sakon-samarrek bazirela ondoren zehazten diren.

Erromatarren eragina Ataunen ere nabaritu zen. Bere sailean bakarria den eratzuna Jentilbaratzatik datorkigu. Halako izen berezia duen toki honetan: Jentilen baratza, Arratetako ateka babesten zuten gazteluaren hormak gelditzen zaizkigu. Ertarokoa da eta Aralarako igarobideetako defentsa-bidearekin uztartzen da. Sarrera zaila du, eremu malakartsua eta goibehera handiak izaki. Enparantzaxoa, horma-puskak eta ur-zuloa gorde dira, Gaztelupean harresiz inguratutako muinoaren alde biak lotzen dituen berezko barne-bidea dago.

Gaztelua 1390ean suntsitu zen erretagindua bitartez. Handik urte gutxitarra atandarrak Ordiziako hiribilduari uztartu zitzaizkion babes-bila. 1615era arte eutsiko diote egoera honi, erregeari 83.685 erreal ardainduaz hiribildu titulua eskuratu bait zuten.

Ataunen lekutu zen Bernoa mendatean zehar Nafarroako erreinutik sartu eta irtetzen ziren merkagaientzako muga. Ez da harritzekoa atandarren tradiziako jardueretariko bat kontrabandoa izatea, azken gorabeherak gerra-ostekoak direlarik.



A taundarrak harro daude Europako herriak luzeenean, beraiek diotenez, bizi izateaz. Ez dute arrazoirik falta Lazkaorekiko mugatik hasita kalebide bat Agaunza ibaiaren pare-paretik ibaibururaino zabaltzen dela gogoan izanez gero. 10 kilometrotatik gora guztira.

la batere etenik-gabe azaltzen dira erakuntzak bide honetan zehar, egun errepide bilakatu den bidea, dirutza ederra berekin zuela itzuli zen indiano baten kontura joan zen mende amaieran egina.

Hiru multzo nagusi ditugu. San Martin, San Gregorio eta Aia; eta gainera Ajarresta,

Aizarte, Astigarraga, Arrondoa, Arinberriaga, Murkuondo eta Ergoena auzoak. Lauztierreka, Motasoro eta Urkilla, errepide nagusitik aldentuak.

Baserrietan pinarritzen den lurganadutza da espazioa betetzen lanbide historiko erabakiorra, oraindik ere eusten zaiolarik.

### Ajarresta

Lazkaotik egiten den sarreran lekutzen da eta Agaunza ibaiondoko lurrez baliatzen diren hainbat baserri sakabanatu biltzen ditu. Zubikoa (35-47) da guztietan aipagarriena. Gaztelu itxura du, batik bat fatxadako albo banatan dituen dorreengatik. XVII. mendean egindako eraikuntza da.

Inguruetan, Otadizelai (35-70) e.a. kokatzen dira. Baserri honen lurretan XVIII. mendera arte baseliza bat existitu zen. Orube honetan bertan, erromatarren garaiko txanpona ere jaso zen.

## SAN MARTIN / ELBARRENA

U dalerriko multzorik garrantzitsuenak du. Gune honetara biltzen den errepide inguruan eratutako hiritar sarea du eta nagusiki tradiziozko eraikuntzez osatutako multzoa.

### HIRIGUNE HISTORIKOA

#### Toursko San Martin Parroki-Eliza (\*7)



Antzinako eliza txiki batek betetzen zuen lekuaz baliatuz hasi ziren eraikuntza egiten XV. mendean. Lehenengo erdiak, aurrekaldeak, harlanduzko hormak ditu eta XVI. mendekoa da, bigarrena beriz, harlangaitzekoa, XVIII. mendean egin zen. Azkenaldia honi dagokio, baita ere, dorrea, Bernardo Abaria Jn.ak. gauzatu zuena. Portada 1833koa da.



Santiago ospitalea.

Nabe bakarreko oinplano angeluzuzena du, bi abside eta kontrahormak kanpo aldean dituena. Gurutzeriazkogangak.

Fatxada nagusian XVI. mendeko Lazkao familiaren armarría dauka, **Elizaren** artekariak izan bait ziren.

#### ■ Iturriaren Plaza

Arkitektur-multzo interesgarria dugu honako hau, D. Juane Txikiren Etxeak (\*12) eta erantsitako bi eraikuntzek osatzen dutena.

D. Juane Txikik sarrera nagusian ezaugarri interesgarriak **dituen** erdi-puntuko arkuua dauka. XVI. mendekoa izan daiteke.

56 zbk.dun etxeak Ainberrira doan barnebidetako bat du. Bertan arku baten erdia bajetik ez da gordetzen eta herriko antzinako ataurre baten usaina hartzen zaio, Gipuzkoako lurretan ezagutzen diren beste hainbat oso antzekoa.

■ Santiago ospitaleak (\*9), kale nagusian dagoenak dirudi **orain** arte gorde diren eraikuntzetarik zaharrena, **bere** berri XVI. mendez geroztik izanik. Ospitalaren zaintzailearen irudia dagoen hormazuloa dauka fatxadan.

■ San Martin auzoa osatzen duten etxerik gehientsuenak XVII. mendean eraiki ziren. Apaizetxea (\*8) 1641. urtekoa da, Intxausti-berri (\*3) etxea bezalaxe. 1658koa dugu Udaletxea (\*4) eta zertxobait berantagoa Bidarte-Enea (\*1).

Grazina-Berri (\*6), Artzubi (\*10), Urzelaieta-Enea (\*5), Urbitartenea (\*13) etxeek eta Ainberriko zubiak (\*11) ezaugarri aipagarriak ez badute ere, San Martingo monumentu **saila** goratu eta borobiltzen **lagun** tzen dute.

■ Multzo honetatik zertxobait aldenturik Galde baserria (\*2) lekutzen da, tradiziozko baserri-arkitekturaren eredu bikaina. Baditu gainera zaindutako hainbat elementu leihotetan eta sarreran. Sarrera-ataria du aipagarri nabarmena.

#### ● Aitzarte

Aizkaretako zapalgunean lekutzen da auzo hau, Aizkoate mendilerroan dauden gailur harkaitzuen inguru biribilak biltzen duelarik.

Jentilbaratza baserriak (35-67) defendatzen du bertarako igarobidea; osperik handieneko aldia Erdi Aroan bizi izan zuen gotorlekua dugu hau, nahiz eta izango zuen nolabaiteko garrantziarik ere erromatarren



Toursko San Martin eliza.

garaian eta baita, beharbada, denboran lehenago ere.

Eraikuntzarik aipagarrienak Zeberione (35-45) baserria eta Mantsueta Sukia (35-68) dira.

#### ■ Astigarraga

San Martingo (Elbarrena) gunea atzean uzten dugularik Nafarroara doan errepidearen albo banatan lekutzen da.

Gurutze Santuaren **baseliza** (35-59) da auzoko eraikuntzarik nabarmenena. 1619an egin zuten eta berriki berritua izan da.

Baserriek bide bazterrak hartzen dituzte. Hauen artean daude Ataungo antzin-garaioko hainbat oinetxe, XVI. mendekoa den Andre-sena (35-44) esaterako.

#### ● Arronáoa

Astigarraga auzoa utzi eta berehala dagoen auzoxka da, estrategia-gune interesgarrikoa, bertatik zabaltzen bait da Aiarako bide zaharra, Nafarroarako erret-galtzada. Eraikitako multzoak estilo berari eusten dio, **beti** ere erabilgarritasunari menertutako **estiloa**.

Aranburu-enea (35-46) eta Bazterrika (35-8) oinetxeek erakusten dituzte **familiako** armariak ezezik-ezaugarriak zainduenak.

#### ● Motasoro

Mendibideetan barna **ibiliaz**, Idiazabalgo udalerriarekin bat egiten duen **ibar** txiki batean zehar hedatzen da. Baserriek baizik ez dute osatzen, zenbait itsaso gainean 500 metrotatik gora lekutzen **direla**. Udalerriko adibiderik zaharrenetarikoen artean barnehartzen da Borda-gaztelu baserriaren egituraketa (40-10).

#### ● Arinberriaga eta Murkuondo

Motasoroko Gurutzebidetik aurrera Arinberriaga auzoa zabaltzen da eta honek Mur-



Gregorio Magno eliza.



**Erraiondo Zahar baserria (Aia).**

kuondo auzoari egiten dio bide, errepeidea san Gregorioko gunera iritsi aurretik.

Murkuondon, Perune-Zahar (40-38) On Joxe Miel Barandiaranen sortetxetik gertu, ikertzaile ospetsuaren etxebizitza dago. Etxe txiki batean bizi zen, neo-euskaldun estilokoa, Sara izena duena, Ifarraldeko herrixka honetan bizi izandako herbestaldurteen oroigarri.

## SAN GREGORIO

**B**iztanlegune honen irudia urrutitik antzematen da. Irudi ezagugarri hau **izaten** gogotik laguntzen dute inguruak **dituen** berezko faktoreek eta **altuera** handiko erakuntzek, Parroki Elizak **esate** baterako. Urrutira, goigune nabarmen bat begitantzen da Agauntzako ibarrarekiko muga bereizten duena. Gaietan tentetzen da San Gregorio Magnoren **Eliza**, eta inguruan zenbait tradizio-etxe biltzen dira.

### ■ San Gregorio Magnoren Parroki-Eliza (40-14)

Elizaren behin-betiko birmoldaketa XIX. mendearen amaiera aldera gauzatu zen (1893). Lehen **baseliza** txiki bat zegoen eta **gelditu** da **bere** aztarnarik eliza modernoaren fabrikari. Kondairak dienez baselizak ertaroko gaztelu baten lekugunea hartu zuen.

Ibaiaz bestaldera Zelebear etxea (40-12) dago, neurri handitako eraikuntza. XVI. mendekoa da eta Lazkaoko Jauna zuen jabe. Jatorriz dorretxea zela uste da. Jauregi honetatik gauzatzen zuen **Ataunen** gaineko jabegotza feudala, inguruko biztanleei gora-behera handiak sortuaz.

### ■ **Lautierreka**

Dozena erdiren bat baserrik osatzen dute esparru hau, batik batik Lauti erreka inguruko ibarraren **behe** aldea hartzen dute.



**Santa Isabel eliza (Aia).**

Montsuetua Sukia (40-8) eta Tellaetxe (40-9) baserriak ditugu aipagarrienak.

### ■ **Ergoena**

Agauntza ibaiaren eta **errepeide** nagusiaren buruz-buruko ibilbidean dagoen erakitako **sailaren** azken muturra osatzen du. Lautierrekarako bidegurutzean **hasi** eta Itxurreneraino (95) **iristen** da; hemen, Ataungo Kontzejuak XVII. mendean Bernoako mendatean zehar zabaldutako Nafarroarako bidea **hasten** da. Mendibizkarrera iristean batera, bitan banatzen da bidea, Urdiain eta Altsasurantz bat, Iturmendi eta Urbasarantz bestea.

**Sail** honetan Sarruarte Azpikoa dugu aipagarri (40-17), tradiziozko landa eraikuntzaren eredu dena.

**AIA**

**A**gauntza ibaiaren buruan, Lizarrustira dihoan bide nagusitik aldendurik lekutzen da.

Santa Isabel elizaren inguruan biltzen den baserri-saila du.

### ■ Santa Isabel Parroki-Eliza (40-22)

Santixaal izenez ezagutzen den eliza hau XVIII. mende amaieran eraiki zuten (1794). **1825ean** sute handi batek elizaren zati handi bat kiskali zuen eta sute hau zela tarte jatorrizko lekugunetik egungora **aldatu** zuten.

■ Aiako bihotzera ailegatu aurretik, Agauntza ibaiari gaina hartuaz errota bat dago, Errota Berri (40-24) eta baita hainbat baserri interesgarri ere, Erraiondo Zahar (40-25), Begiristain (40-20) eta Urtaza Txiki (40-16).

Urkillagara doan bazterbide inguruan ere nabarmentzen dira hainbat baserri, Txuloa (40-18), Ibarrondo Haundi (40-19) eta Praskoene (40-21).

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako  
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

